

Onddoak elikagai... eta arma

DAVID SILVERMAN



Aflatoxina toxinare 22.000 litro atzeman zituzten Irakeko gordailuetan.

duenez, onddoetan oinarritutako arma biologiko asko dago, gerretan erabiliak izan direnak eta erabiltzen direnak.

Vietnamgo gerran AEBek eta SESBk esperimentu gisa erabili zituztelako susmoa dago; milaka pertsona hil omen ziren modu horretan. Irakeko gordailuetan, berriz, 22.000 litro aflatoxina aurkitu zituzten mende-baldeko indar militarrek 1990ean, herrialdea inbaditu eta gero. *Aspergillus* generoko onddoek sortutako toxina hori Scud misiletan kokatuz gero, misilak jotako lurretan uztak eta animaliak kutsatzen ditu, eta haien bidez gizakiarengana iristen da. ■



EAEko clusterrak, aldi berean eredugarri eta eztabaidagarri

COBKEBAASK



Confebasken eta hainbat clusterren arteko bilera.

EAEn urteak daramatzate clusterrek lanean, eta ekonomiaren hainbat sektoretan "botere faktiko" izatera ailegatu dira. Azken urteotan asko ugaltu dira, eta ugalketak arazoak ekarri ditu. Askok izateko indarren dispersioa ekar dezake neurri batean, baina gutxi izateko ekonomiak behar duen malgutasunaren aurkako politikak eragin ditzake. Zaila benetan, oreka lortzea! ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Nola islatzen diren emozioak gorputzean

Egoera emozionalak gure gorputzeko energia fluxuetan eta organoen egoeretan aldaketak eragiten dituela badakigu. Azken urte hauetan egindako ikerketa bat emozioen eragina hobeto ulertzen ahalegindu da, eta horri esker errazagoa izango da disfuntzioetarako tratamendu egokiak aurkitzea.

ttiki.com/86646

(Ingeleseaz)

Lurraren magnetismoa aldakorra da

Iparorratzak Ipar Poloa adierazten du, baina Ipar poloa Antartidaren gainean kokatu izan da aitzinean; hau da, Lurraren magnetismoa aldakorra da, eta horren zergatia misterioa da. Gaiak badu garrantzirik; besteak beste, magnetismoak espaziotik datozen izpiez babesten gaituelako.

ttiki.com/86647

(Gaztelaniaz)

Enpresa batek fusio nuklear erreaktorea iragarri du bost urte barrurako

Lockheed Martin enpresa estatubatuar ospetsuak adierazi berri duenez, bost urte barru kamioi baten tamaina edukiko duen fusiozko erreaktore bat eraikita izango du. Haren bidez Martera hilabete bateko bidaia egiterik egongo da, esan dutenez.

ttiki.com/86648

(Frantsesez)